



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2016/07/28

## **Gerediagako Foru Zelaiak modu iraunkorrean zabalduko ditu ateak jendearentzat, museo bilakatzeko prozesuaren ostean**

Gaurtik aurrera Gerediagako Batzarretxea bisitatu ahal izango da. Bere harrien artean Durangaldeko eta Bizkaiko historiaren parte garrantzitsua gordetan dauen foru zelaia jendearentzat behin betiko zabaltzea erabagi dabe Batzar Nagusiek. Ingurua urteko egun guztietan zabalduko da, eta horretarako Bizkaiko Batzar Nagusien eta Abadiñoko Udalaren arteko lankidetzarako akordioa behar izan da. Abadiñoko Udalak Gerediaga Elkartearen aholkularitza izan dau.

Zabaltze hori bat dator seinaleztapen sistema barriaren inaugurazioagaz. Sistema horretan, Bizkaiko historian erreferentziakoa dan puntu horren balio kulturalaren eta artistikoaren gaineko informazio praktikoa jasoten da. Aitatutako erakundeek informazio panelak –sei– aurkeztu ditue gaur goizean. Imanol Larrinagaren irudiak dituen eta hiru hizkuntzatan (euskera, gaztelania eta ingelesa) dagozan panel horreetan, antxina eskualdeko ordezkariak alkartzen ziran lekuaren garrantzia, bilakaerea eta historia kontetan da.

Gerediagak historiaren ikuspegitik dauen garrantzia ezin da zalantzan jarri. 600 urtez gitxienez bertan lantzen ebezan gaiak Durangoko Merinaldeko Batzarrek. Eskualdeko leku historiko garrantzitsua eta bertako ikonoa da. 2003an Batzar Nagusien laugarren egoitza ofiziala bilakatu zen, barrizatze proiektua gauzatu ostean, Gernikako eta Abellanedako Batzarretxeakaz eta Bilboko Administrazio egoitzagaz batera. Abadiñoko herriarentzat, eta Gerediaga auzoko biztanleentzat, batez be, oso leku ezaguna da. Bizkaiarentzat, herritarren ordezkariak urtean behin alkartzen diran lekua. Urte gehienetan, ikasturte politikoa zabaltzen dauen osoko bilkurea bertan egiten da.

Bihartik aurrera, barrutiak ordutegia zabalean jaso ahal izango ditu bisitak. Apiriletik irailera, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00etara bisitatu ahal izango da. Urteko gainerako hilebeteetan –urritik martxora– arratsaldeko 18:00ak arte egongo da jendearentzat zabalik.

Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentek, hiru erakundeen –Gerediaga Elkartea, Abadiñoko Udala eta Batzar Nagusiak– arteko lankidetzeta azpimarratu dau gaur, beretzat “leku parebakoa eta Anbotoko mendikatera begiratzeko lekuri hoberenetakoa dan leku honetan”. Azaldu dauenez, gaur emondakoa “oso pausu garrantzitsua da espazio sinboliko hori bizkaitar guztiengana heldu arazoteko. Turistek, bisitariak eta Gerediagako biztanleak egunero gozatu ahal izango dabe paraje eder honegaz”. Instalatu diran informazio-euskarriak esker “hobeto ezagutu arazoko dira mende luzez Durangaldeko hamabi eleizateetako ordezkariak alkartu ziran lekuaren jatorria eta



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

bilakaerea”, esan dau. “Gure iragana hobeto ezagutzeko eta gure eskubide historikoetan oinarritzen dan etorkizun komunera aurrera egiteko” beste bultzada bat da.

José Luis Navarro alkateak, ingurune hori jende guztiarentzat zabaltzeak Abadiñoentzat dauen garrantzia azpimarratu dau. “Gerediagako Batzarretxea udalerrri honetako ondare monumental eta historikoaren eraikin garrantzitsuenetakoa da, eta hemendik aurrera herritarrek eta bisitariak leku hori ezagutzeko aukera izango dabe. Hori dala eta, herritar guztiei Gerediagako foru zelaira joateko eta, bide batez, historiaren, paisajearen eta kulturaren ikuspuntuetatik Abadiñok eskintzen dituan beste gauza eder ugariak ezagutzeko, gonbitea egin gura deutset”.

Nerea Mujika Gerediaga Elkartearen presidentek, bere aldetik, Gerediagako foru zelaia Merioaren ibilpideko parte garrantzitsua dala esan dau, “zortzi espaziotan zehar Durangaldearen sorrera, historia, bilakaerea eta antolaketa politikoa ulertzeko” prestatutako ibilpideagaz. Batzar Nagusien eskutik espazio bizia da oraindino Gerediagako foru zelaia, Foruak deuseztatu ziranetik 140 urte bete diran une honetan – joan dan garagarriaren 21ean–. Horma-irudi honeekaz eta lekua egunero zabaltzeko erabagiagaz aurrera pausu bat emoten da: Merinaldearen iraganak zabalkunde handiagoa izango dau eta Merioaren ibilpidea esperientzia osoagoa izango da”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
28/07/2016

## **La Campa Foral de Gerediaga abre sus puertas al público de forma permanente tras un proceso de musealización**

La Casa de Juntas de Gerediaga podrá ser visitada a partir de hoy. Las Juntas Generales de Bizkaia han decidido abrir definitivamente al público la campa foral que esconde entre sus piedras una buena parte de la historia del Duranguesado y de Bizkaia. La apertura del recinto se producirá todos los días del año y ha sido posible gracias a un acuerdo de colaboración entre el Parlamento de Bizkaia y el ayuntamiento de Abadiño, que ha contado con el asesoramiento de la asociación Gerediaga Elkarte.

La apertura coincide con la inauguración de un nuevo sistema de señalización que incluye información práctica sobre el valor cultural y artístico de este punto de referencia de la historia de Bizkaia. Las instituciones mencionadas han presentado esta mañana un conjunto de paneles informativos –seis- que relatan en tres idiomas (euskera, castellano e inglés) , con ilustraciones de Imanol Larrinaga, la relevancia, evolución e historia del lugar donde antiguamente se reunían los representantes de la comarca.

La importancia histórica de Gerediaga es indudable. Habiendo sido el lugar donde dirimían los asuntos las Juntas de la Merindad de Durango, al menos durante 600 años, es el lugar histórico más importante de la comarca y su principal icono. En 2003 se convirtió en la cuarta sede oficial de las Juntas Generales tras un proyecto de reforma, junto con las Casas de Juntas de Gernika y Abellaneda, y la sede administrativa de Bilbao. Para el pueblo de Abadiño y, especialmente, para los vecinos del barrio de Gerediaga, es un lugar popular. Para Bizkaia, es punto de encuentro de los representantes de la ciudadanía una vez al año. Habitualmente, se celebra el pleno que abre el curso político.

A partir de mañana, el horario de apertura del recinto será amplio. Entre los meses de abril a septiembre, podrá ser visitado entre las 10 y las 20 horas. El resto del año –entre octubre y marzo- permanecerá abierto al público hasta las 18 h.

La presidenta de Juntas Generales, Ana Otadui, ha destacado hoy en lo que es para ella un “marco incomparable y uno de los mejores miradores sobre la bellísima crestería del Anboto”, la colaboración de las tres instituciones -Gerediaga Elkarte, Ayuntamiento de Abadiño y Juntas Generales-, que viene a ser un “paso importante para abrir este simbólico espacio a todos los vizcaínos y vizcaínas. Turistas, visitantes y vecinos de Gerediaga podrán disfrutar todos los días de este hermoso paraje”. Con los soportes informativos instalados se divulgará “mejor el origen y evolución del lugar donde durante siglos se juntaron representantes de las doce anteiglesias del Duranguesado”, ha dicho. Supone otro empujón para “conocer mejor nuestro pasado y poder avanzar hacia un futuro en común asentado sobre nuestros derechos históricos”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

El alcalde, José Luis Navarro, ha incidido en la importancia que para Abadiño representa la apertura al público de este entorno. "La Casa de Juntas de Gerediaga es uno de los edificios más importantes del patrimonio monumental e histórico de este municipio, que a partir de ahora podrá ser conocido por vecinos y visitantes. Por ello, animo a la población a que acuda a la campa foral de Gerediaga y, de paso, conozca los otros muchos atractivos que desde el punto de vista histórico, paisajístico y cultural ofrece Abadiño".

Por su parte, Nerea Mujika, Presidenta de Gerediaga Elkarte, ha señalado que la campa foral de Gerediaga es parte importante de la ruta del Merino, un recorrido con ocho localizaciones que diseñaron para "entender la creación, historia, desarrollo y organización política del Duranguesado". De la mano de las Juntas Generales, la campa foral de Gerediaga continúa siendo un espacio "vivo", justo cuando se cumplen –el pasado 21 de julio-, los 140 años de la abolición los Fueros. "Con estos murales y la decisión de abrir el lugar todos los días, se da un paso adelante: el pasado de la Merindad llegará a más gente y el recorrido del Merino será una experiencia más completa", ha sostenido.